



DEMOKRAZIAREN ALDEKO LEZOKO ADIERAZPENA

Gauza bat erreala izateko lehenengo irudikatu egin behar da, eta behin irudikatzen duzula, gerturatzen ari gara; eta ilusioa baldin badugu, pausuak ematen hasten gara.

Guk irudikatu dugu Lezon inoizko elkarrizketa saio zabalena eta anitzena egitea. Ohiko gertuko jendearengandik hasita, baina, urrunago ditugun horiengana ere helduko dena. Desberdinon arteko ilusio partekatua sortzeko gai izango dena. Herri atxikimendua indartzeko gai izango dena eta herri gisa batera jarduteko bidea emango duena.

Guk irudikatu dugu zer izan nahi duen, nongoa izan nahi duen herritarrei galdetuz erabakitzeko gai den herri bat. Gerren eta armen gaintik herritarren borondatea eta demokrazian sakontzea jartzeko gai den herri bat. Irudikatu dugu elkertasunez beteriko herria. Herritarren arteko harreman sareak sendotuz, elkarri babesa emateko eta guztiok batera aurrera ateratzeko gai den herria.

Irudikatu dugu hori guztia herritarrak eurak beraien kaxa egiten hasten diren herria. Politika politikoen esku uzteko zeregin garrantzitsuegia dela uste duten herritarrak elkar hartuta lanean hasten diren herria. Jende txiki askok, leku txikietan, gauzak txikiak egiten mundua alda dezaketela sinesten duten herritarrak gauzak egiten hasten direna.

Eta ilusioa dugu, pentsatzen dugulako dinamika hau lezoarrak batzeko baliagarria izango dela. Giza katean lezoar mordoa batzeko gai izan zela ikusita, ilusioa egiten digu pentsatzeak, datorren urteko martxoaren 19an, gaur egun baino kohesionatuagoa, trinkotuagoa egongo dela herria.

Ilusioa dugu, beste batzuek erakutsi digutelako arazo hauek konpontzeko modurik egokiena dela herritarren esku uztea erabakia. Uste dugulako, Katalunian eta Eskozian bezala, Lezon eta Euskal Herrian ere egin daitekeela. Eskoziarrak eta katalanak bezain herri eta herritar helduak garelako.


Ilusioa sortzen digu denontzat ona izango den dinamika abiatzen dugula pentsatzeak. Demokrazian sakontzea denontzat ona baita eta demokrazian sakontzeko sortu baita Demoarso. Horregatik, emaitza dena delakoa izanda ere, bideak sortzen digu ilusioa.

Eta bidea ibiliaz egiten denez, pausoa ematera goaz. Ziur gaude zirrargarria izango dela bidea, ziur, amaierara helduta, Lezoko plaza eta bertako jendea desberdinak izango direla. Bideak egingo duelako bidaiaria eta bidaiariok eraldatuko dugulako helmuga.

Bidea arinago egiten da ordea, konpainian. Bidea eginez gozatu nahi baitugu. Horregatik egin nahi dugu zuekin bidea. Ez zuekin bakarrik noski, zuetako bakoitzak ere inguruko lagunak bide honetara ekartzea nahi dugu. Hogeik ehun eta ehunek bostehun, azkenean herri osoak pausoa emateko. Hara hor erronka. Irudika dezagun, ilusioz ilusioa kutsatu dezagun eta pausok eman ditzagun.

Bazatuz?

BAI	EZ	ZURIA
-----	----	-------



DEMOKRAZIAREN ALDEKO LEZOKO ADIERAZPENA

Para que una cosa sea real, primero hace falta imaginársela. Una vez que la hemos imaginado, ya nos estamos acercando a ella, y si además contamos con ilusión, llegan los primeros pasos hacia lo imaginado.

Hemos imaginado el mayor y más amplio intento de diálogo de todos los tiempos en Lezo, comenzando primero por las personas cercanas, pero queriendo llegar hasta aquellas que nos quedan más lejanas. Un intento que sea capaz de crear una ilusión compartida por gente diferente, que sea capaz de fortalecer el compromiso popular y que nos muestre el camino para avanzar juntos como pueblo.

Hemos imaginado un pueblo capaz de decidir su futuro con la voz de las personas que la habitan. Un pueblo que anteponga a las guerras y las armas, la voluntad popular y la profundización de la democracia. Hemos imaginado un pueblo lleno de solidaridad, un pueblo que refuerce las relaciones entre personas y sea capaz de salir adelante con el apoyo mutuo.

Hemos imaginado que todo eso ocurre por iniciativa propia de vecinas y vecinos. Imaginamos un pueblo unido que empieza a trabajar porque cree que la política es una tarea demasiado importante para dejarla en manos de políticos. Imaginamos que esas vecinas y vecinos empiezan a hacer cosas porque piensan que es posible cambiar el mundo si mucha gente pequeña lleva a cabo cosas pequeñas en lugares pequeños.

Nos ilusiona porque consideramos que esta dinámica servirá para unir a las personas de Lezo. En vista de que la cadena humana reunió a muchos lezoarras, nos llena de ilusión pensar que el 19 de marzo del año que viene contaremos con un pueblo más cohesionado y unido.

Nos ilusiona porque otros ya nos han demostrado que la mejor forma de resolver estas cuestiones es dejar la capacidad de decisión en manos del pueblo. Porque tenemos el convencimiento de que, tal y como ha sido posible en Cataluña o Escocia, lo será también en Lezo y en Euskal Herria. Porque somos un pueblo tan adulto como el escocés o el catalán.

Nos ilusiona pensar que iniciamos una dinámica positiva para todas las personas, porque profundizar en la democracia favorece a cualquiera y Demoarso se crea justamente para tal fin. Por tanto, sea cual sea el resultado final, lo que nos llena de ilusión es el propio camino.

Y como se hace camino al andar, vamos a dar el paso. Tenemos el convencimiento de que será un camino apasionante. Ni la plaza y la gente de Lezo serán las mismas una vez alcanzada la meta, porque el camino formará caminantes, y esas personas serán quienes formen la meta.

Ciertamente, el camino se hace menos pesado en compañía. Queremos gozar del camino, y para ello contamos con vosotras, con vosotros. Queremos además que animéis a vuestras compañeras y compañeros a tomar este camino, para que podamos pasar de ser veinte a ser cien y de cien a quinientos, y al final sea todo el pueblo el que dé el paso definitivo. Ahí está el reto. Vamos a imaginarlo, vamos a contagiar la ilusión con la ilusión, vamos a dar pasos.

¿Te vienes?

SI	NO	BLANCO
----	----	--------

